



Errefuxiatuak Ondarroako bidetik Lekeitiiorantz

Gerra zibila Lekeition

eta *Lekeitioko Frontean*

1936ko uztailetik urrira arteko egunak

Patxi Juaristi Larrinaga

Artikulu honen lehen asmoa da Gerra Zibila hasi osteko lau hilabeteetan (1936ko uztaila eta urria bitartean) Lekeition eta Lekeitioko Frontean gertatu zena berreraikitzea. Bigarrenik, 1936ko urriaren 22tik 29ra bitartean Lekeitioko herritarren aurka hegazkin frankistek burutu zituzten bonbardaketak hobeto ulertu nahi ditugu. Artikulu honek hiru garren helburu bat ere badu: 1936ko urriko bonbardaketen ondorioz Lekeition hil edo zauritu zirenen oroimena bizirik gordetzea.



1. 1936ko uztailaren bigarren hamabostaldia: gerrako lehen egunak

Militarren altxamendua 1936ko uztailaren 17an gertatu zen, eta handik hiru egunetara, uztailaren 20an, gobernu errepublikazalea militar matxinatuei

aurre egiteko antolatzen hasi zen. Horrela, Bizkaiko Gobernadore Zibilak, Jose Etxebarria Novoak, Santiago Meabe (Bilbo, 1878 – Bilbo, 1961) sozialista bere ordezkari izendatu zuen Markinako Barruti Judizialean¹ (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007:144; Camino, 1985:89; Goigana, 2010:74).²

¹ Markinako Barruti Judiziala 1884. urtean sortu zen, eta bertan sartzen ziren gaur egun Lea-Artibai osatzen duten herriak, eta baita Mallabia, Ermua, Garai eta Zaldibar ere.

² Iñaki Goiganak zera zioen Santiago Meaberi buruz (Goigana, 2010:74): "Gerra hasi eta ia batera Bizkaiko gobernadore zibilak, Echevarria Novoak, Markinako ordezkari izendatu zuen. Bazegoen horretarako nahiko arrazoirik. Batetik, bere aspaldiko militantzia abertzalea eta orduko kideza sozialista. Argi zegoen matxinoen kontrakoa eta Errepublikaren aldekoa zela eta, bestetik Xantyn Lea-Artibaierako lotura. Bizkaiko ekialde hori zen, beharbada, lurraldeko eremurik nekazariena edo, beste era batera esanda, gutxien industrializatua izango zena orduan. Baziren han, gainera, matxinoen aldeko jen-



Uztailaren bukaerako egunak lasaiak izan ziren. Gerra urrun zegoen, eta lekeitiarrek betiko bizimoduarekin jarraitu zuten. Dena dela, tradizionalistak eta monarkikoak beldurtuta zeuden, euren usteen aurka, altxamenduak

de multzo batzuk, esaterako Ondarroako erreketek edo Markinako monarkikoak. Kontuan izan behar da gainera, Ondarroako karlistak matxinatu egin zirela, nahiz eta laster amaitu errebolta. Egoera horretan Echevarria Novoak bere erako buruzagi askorik ez zeukan aukeran. Meabe bai. Jatorriz, meabetarrak lekeitiarrak ziren eta Xanty Bilbon jaioa izan arren, Lekeition eta Ondarroarekin harreman handia zuen. Gazte-denboran, udaldietan-eta, Lekeitiorea joaten zen, eta han ikasi zuen euskara, Resurrección Azkuek irakatsita. Bestalde, emaztea ondarrutarra zuen eta ezkonduz gero hara joaten hasi zen atsedean hartzera. Gainera, inguruko kontserba-enpresetako ordezkari ere bazen. Beraz, Markina inguruko lurraldean erabat errotutako pertsonaia zen Santiago Meabe. Bere kargu zegoen eremua, gaur egungo Lea-Artibaiko eskualdeaz gain, Durangaldeko Mallabia eta Garaik ere osatzen zuten".

huts egin zuelako Bizkaian eta Gipuzkoan; milizianoak ikusten zirelako kaleetan; eta, batez ere, uztailearen 24an, Santiago Meaberen aginduz, Ondarroako hainbat tradizionalista atxilotu zituztelako. Atxilotetok burutzeko arrazoiak izan ziren erreketen talde bat osatzen zutela, matxinada hasi aurretik militarri entrenatzen aritu zirela, eta, altxamendua gertatzen zen unean, Markinako alkate tradizionalistaren, Jose Luis Gaitan de Ayalaren, Patrokua jauregira armak jasotzera joateko agindua zutela (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007:142-151).

Sei egunetara, uztailearen 30ean, Markinako beste bost tradizionalista ere atxilotu zituzten Santiago Meaberen aginduz, ihes egina zegoen Markinako alkate tradizionalistari, Jose Luis Gaytan de Ayalari, buruz informazioa lortzeko helburuarekin. Ondarroako tradizionalistak bezala, hauek ere Markinako kartzelan sartu zituzten, erreketen taldeko kide zirela salaketapean (Onaindia, 1937).³



2. 1936ko abuztua Lekeition: lehen soldadu uniformatuak agertzen dira

Ondarroako eta Markinako atxilotuen ondorioz, Lekeitioko tradizionalista eta monarkikoak ere urduri zeuden; egoera nahasi harekin beldurtuta. Dena dela, abuztuaren hasieran gerra girorik ez zegoen Lekeition. Gerra urruneko kontua zen.

Apurka-apurka, baina, giroa aldatzen hasi zen.

Abuztuaren hasieran, Migel Garabilla, Raimundo Ganboa,⁴ Bittor Erkiaga eta Ander

Ordorika⁵ Lekeitioko EAJ-ko gazte abertzale batzuk militarri trebatzen hasi ziren, inguruko lehen talde militarria sortuz. Itsasalde batailoien hazia izango zenaren lehen konpainia sortu zuten (Gamboa, 2004:28-29; Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 2007:256-257).

Bestetik, lehen uniformedun soldadua agertu ziren herrian. Hain zuzen ere, abuztuaren bukaeran, Juul Christiaens⁶ belgikarraren agindupean zeuden UGT-ren hirugarren batailoiko miliziarrek agertu ziren Lekeition (Talon, 1988:352).

Lekeitiarrak gerran murgiltzen ari zirenen beste seinale bat izan zen gerrako itsasontzi alemaniar bat Lekeitioko portura iritsi zela, atzeguardian gertatzen zena aztertzer. Udak Lekeition pasatzen zituen Jose Maria Ganboak gogoratzen zuenez: “*Como todos los veranos, estábamos en Lekeitio. A mediados de agosto se*

1936ko abuztuaren, gerrako frontea urrun zegoen, eta, gainera, oso gutxi ziren gerrarako mobilizatutako lekeitiarrak (bakarrik alderdi politikoetako militante batzuk)

oyeron los cañonazos de los primeros bombardeos navales, y poco a poco empezaron a verse milicianos ya uniformados. Recuerdo que un día

Donostiako Ondarretako espetxean sartu zituzten. Handik hiru egunetara, urriaren 18tik 19rako goizaldean, horietariko asko fusilatu zituzten, Hernaniko hilerriko hormetan. Raimundo Ganboa –baita Aitzol euskal idazlea ere–, Galerna itsasontzian atxilotu eta ostean fusilatu zutenetarikoa bat izan zen (Gamboa, 2004; Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 2007: 129 eta 256-257).

⁵ Itsasalde batailoia sortu zenean, Bittor Erkiaga batailoiko komandante egin zuten, eta Ander Ordorika intendente (Vargas, 2001:314).

⁶ Juul Christiaens belgikarra Lasarte inguruan (Gipuzkoa) aritu zen borrokatzen 1936ko uztailean eta abuztuaren. Atzerriko boluntarioekin osaturik zegoen Edgard André taldeko burua zen. Abuztuaren bukaeran Lekeitioko Frontera bidali zuten, UGT-3 batailoien komandante ardurarekin. Urriaren bukaeran, Lekeitioko Fronteko komandante egin zuten (El Liberal, 1936-10-21). Lekeitiotik Urduñara bidali zuten (abenduaren 7tik aurrera) eta azkenik Madrilera borrokatu zuten. Bere emazte Soledad Genius bere alboan egon zen, gerrako garai osoan (Vargas, 2007:330, Talon, 1988:345-347; Gorriti, 2005).

un barco de guerra alemán rindió visita al alcalde de Lekeitio. Éste les recibió en el Ayuntamiento, les invitó a té con pastas y luego marcharon; sin duda, habían venido a informarse de cómo estaba la retaguardia republicana” (Agirre, 2005).

1936ko abuztuaren, gerrako frontea urrun zegoen, eta, gainera, oso gutxi ziren gerrarako mobilizatutako lekeitiarrak (bakarrik alderdi politikoetako militante batzuk). Dena dela, abuztuaren erditik aurrera, jendea larritzen hasi zen. Izan ere, herritarrek bazekiten Gipuzkoan gogor borrokatzen ari zirela, jendea hiltzen ari zela, eta guda lerroa gero eta hurbilago zegoela.⁷



3. 1936ko iraila: herritarrak gero eta urduriago

Irailaren hasieran ere lekeitiarrak bakean bizi ziren. Horren adierazle da San Antolin jaiak ospatu egin zituztela. Horrela, San Antolin egunean (asteazkena), ohiko pilota partidak jokatu ziren (Euzkadi, 1936-9-4), baita irailaren 6an (zapateria) ere. Azken egun horretako partidak Bizkaian zeuden gizarte beharrezan alde izan ziren (nagusiki Bizkaian zeuden errefuxiatuen alde) (Euzkadi, 1936-9-5).

Apur-apurka, baina, giroa aldatzen hasi zen; besteak beste, Gipuzkoan gertatzen ari ziren borroketatik ihesi, gero eta errefuxiatu gehiago zetorrelako herrira.

Irailaren Sean, frankistek Irun hartu zuten, eta biharamunean, 1936ko irailaren 6aren bueltan (igandea), ondarrutar, markinar edo lekeitiarrak gipuzkoarren lehen ihesaldi handia ikusi zuten. Ondarrutar askok “(...) Lekeitioko jaietatik oinez bueltan zetozela topo egin zuten atzera egite orokorrarekin” (Iparragirre, 2008:155).

⁷ Alberto Onaindiak gerra hasi eta gutxira Lea-Artibai eskualdean bizi zen egoerari buruz zioen legez: “Resultaba difícil hacerse una idea exacta de lo que acontecía en diversas capitales y provincias del Estado. Las primera noticias de asaltos, tiroteos, combates callejeros, prisioneros y muertos llegaron de San Sebastián. La bella capital de Guipúzcoa era escenario de graves choques y de encuentros sangrientos. Donato de Ugartechea nos trajo un día noticias frescas de Donostia. Venía aturrido y asustado de cuanto había podido presenciar. Así pasamos varios días y hasta semanas. El 12 de agosto vino a casa, desde Elgoibar, mi hermano Celestino, coadjutor de aquella parroquia, y nos trajo más confirmación de ataques de grupos navarros contra localidades de la frontera de Guipúzcoa. Ya se hablaba de violencias de parte de los carlistas” (Onaindia, 1980: 20-21).

³ Ez dakigu Lekeition erreketen talde antolatuturik zegoen edo ez. Dakiguna da Ondarroan eta Markinan bazeudela horrelako taldeak. Ezaguna da estatu-kolpearen aurretik 40 bat erreketen entrenatzen aritu zirela Ondarroan, eta armak ere bazituztela (Talon, 1988:880; OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007:149).

Markinan eta Xemeinen ere bazegoen erreketen talde txiki bat (Onaindia, 1937). 1936ko otsailetik aurrera, Ondarretarrak bezala, Markinako eta Xemeingo erreketek ere estatu-kolperako prestatzen aritu ziren. Are gehiago, badirudi erreketen gazte batzuek bazekitela altxamendua gertatuko zela, uztailearen 17an heritik kanpo zeudelako, eta gero erreketekin aritu zirelako borrokan Markinako Frontean.

Erreketek Durango, Zabalaundin eta Urkiola inguruan ere aritu ziren entrenatzen. Irazabalen arabera, 200 erreketen baino gehiago zegoen militarri trebatuta Durango aldean, altxamenduen zain (Irazabal, 2007: 7; Irazabal, 2001:19). Talonen ustez, Bizkaia osoan, 3.200 bat erreketen omen zeuden borrokarako prest (Talon, 1988: 88).

⁴ 1936ko urriaren 15ean, frankistek Iparraldetik Bilbora zihoan “Galerna” bakailao-ontzia harrapatu zuten, Pasaia-tik 17 miliatara. Itsasontzian zihoazen guztiak atxilotu, eta

EASTMAN



Gudaria Lekeitioko frontean.
Argazkia: Sabino Arana Fundazioa

Lekeitio errefuxiatuz betetzen hasi zen. Egoera ondo azaltzen duen datu bat emango dugu: gerra hasi eta bost hilabetera, 1936ko abenduaren bukaeran, 2.089 errefuxiatu bizi ziren Lekeition (Euzkadi, 36-12-20). Kontuan hartzen badugu gerra hasterakoan Lekeitiok 4.127 biztanle zituela, konturatzen gara, gerra hasi eta hile gutxira, herriko biztanleria % 50 hasi zela. Herria goitik behera aldatu zen.

Irailaren 13an, Mola jeneralaren tropak Donostian sartu ziren, eta irailaren 21ean, Gipuzkoa bereganatu ostean (Eibar, Elgeta eta Mutriku izan ezik), matxinatuak San Migel gainean, Kalamua mendiaren oinetan eta Urkaregin agertu ziren (Elgoibarko lurrak); hau da, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugan (Juaristi, 2014b).

Egun hartan, urduritasuna eta beldurra nagusitu zen Lea-Artibaiko herritar askoren artean.

Markinar eta xemeindar askok (bereziki gazteak eta erantzukizun politikoak zituztenak) pentsatu zuten erreketek berehala sartuko zirela, eta, izututa, ihes egin zuten 21etik 22rako goizaldean. Horiatariko batzuk Lekeition ezkatu ziren (Onaindia, 1937: 7).

Ondarrutar askok ere ihes egin zuten irailaren 21ean (Basaldua, 2017). Hauetariko asko ere Lekeition ezkatu ziren.



4. 1936ko iraila: Lekeitio-ko Frontea sortzen

Errepublikazaleek ikusten zuten frankistak arazorik gabe aurreratzeko zirela, Gipuzkoa ia osoa konkistatua zutela, eta laster gauza bera egingo zutela Bizkaiarekin. Beraz, hauen aurrerabidea gelditzeko asmoz, abuztuaren bukaeran, UGTren 3. batailoia (Gonzalez Peña), Facundo Perezagua batailoia komunista eta Herri-milizietako kideak⁸ Asterrika inguruan (Berriatua)⁹ kokatu ziren¹⁰ eta, apur bat geroago,

⁸ Herri Miliziak gerratearen hasieran, alderdi politikoe-tako boluntarioekin osatutako guda-taldeak izan ziren. Arma eta munizio gutxiarekin, eta buruzagi militar profesionalik gabe, aritu ziren frankisten aurka borrokatzen. Herri milizietako bi kide hil ziren Lekeitioko Frontean urriaren hasieran borroketan: Eusebio Lopez Barcena, 1936ko urriaren 10ean, eta Cirilo Lopez Carcena urriaren 11n.

⁹ 1936ko urriaren hasieran, Lekeitioko Frontean izan ziren borroketan batailoia honetako laugarren konpainiako Rikardo Bilbao hil zen. Irailaren 19an omenaldia egin zioten Lekeitioko kanposantuan. Batailo horrek izan zuen lehen hildakoa izan zen (El Liberal, 1936-10-21).

¹⁰ Kontuan izan Asterrika auzoa (Berriatua) Bizkaiko Gol-

baita Itoinomendian, Milloin eta Kalamendin. Ingurune horretan babeserako lubakiak, gortorlekuak eta soldaduentzako aterpetxeak eraikitzen hasi ziren; alegia, Lekeitioko Fron-

Erreketek eta falangistak Bizkaiko "atean" zeudela ikusita, Lekeitioko frontean zaintzen ari ziren soldaduak frontea sendotzeko ahaleginak areagotu zituzten

tea izenarekin ezagutuko zen frontea antolatzen¹¹ (Talon, 1988:352; Vargas, 1994:55; Gorriti, 2015; Juaristi, 2014a).

Irailaren erdi inguruan, EAE-ANVko bigarren (Euzko Indarra) batailoiko gudariak etorri ziren Lekeitiara. Gipuzkoarrak ziren gehienak, eta Gipuzkoan borrokatu ostean, Asterrika ingurua bidali zituzten, frontea antolatzera (Vargas, datarik gabe-IV:175 eta 251).

Irailaren zehar, EAE-ANVko lehenengoa (Olabarri) batailoiko gudariak ere etorri ziren. Hauek bizkaitarrak ziren gehienak (Vargas, 2001:523), eta aurrekoek bezala, Lekeitioko Frontea antolatzeko agindua zuten.

Irailaren bukaeran, UGTren 2. batailoiko milizianoak (Indalecio Prieto batailoioak), ere agertu ziren Lekeitio inguruan (Vargas, 1994:54; Talon, 1988:352).¹²

1936ko irailaren bukaeran edo urriaren hasieran beste batailoia hauek ere Lekeition zeuden:

Castilla (JSU –Juventud Socialista Unificada–) batailoia irailaren bukaeran edo urriaren hasieran bidali zuten Lekeitioko Frontera (Vargas, datarik gabe-II:160).

Saseta metrailadoreen batailoia (EA) ere Kalamendi, Milloi eta Asterrikan kokatu zen 1936ko urriaren hasieran (Bidaso, 2005:677; Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006:65-85 eta 89; Vargas, 2001:329).

koaren bazterrean dagoela, Ondarroa, Mendexa, Lekeitio eta Berriatuko herri guzuek erdi aldean; beraz, ikuspuntu militarretik, toki estrategikoak ziren.

¹¹ Frontearen zati honen izen ofiziala Lekeitioko Frontea edo Lekeitioko Sektorea zen. Dena dela, hainbat ziren Asterrikako Frontea izenarekin ezagutzen zutenak. Ondorioz, hainbat liburutan Asterrikako Fronteari edo Sektoreari buruz hitz egiten da, baina, ofizialki, Lekeitioko Frontea zen.

¹² Batailoia honetako Timoteo Rodriguez Garcia Lekeitioko Frontean hil zen 1936ko urriaren 20an.

Barakaldo Batailoiko bigarren eta hirugarren batailoioak eta Santander batailoioak ere Lekeitioko Frontean zeuden 1936ko urriaren hasieran. (<https://errepublikaplaza.wordpress.com/2016/09/15/batallon-28-baracaldo-martinez-aragon/>; El Liberal, 1936-10-8).

Abuztuaren bukaeran hasita, kanpoko gudari eta miliziar ugari etorri zen Lekeitioko Frontea prestatzera. Dena dela, Lekeitioko eta inguruko gazteak ere antolatu ziren Gipuzkoatik gelditu gabe zetozen frankistei aurrerabidea gelditzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, abuztuaren hasieran militarri trebatzen hasi ziren Lekeitioko gazte talde hartatik abiatuz, Itsasalde konpainia sortu zen, 1936ko irailaren bukaeran. Konpainia hau Itsasalde batailoien hazia izan zen, eta kostaldean jatorria zuten boluntarioekin osatu zen; nagusiki Ondarroa, Lekeitio, Mendexa, Ea, Elantxobe, Mundaka edo Bermeoko gazte abertzaleekin, baina baita barneko herrietako gazteekin ere (berbarako, muxikarrak, gernikarrak, berriatuarak, markinarrak edo xemeindarrak). Militarri antolatzeaz bat, Itsasaldeko gudariak (zehazki Boga-Boga konpainiakoak) Lekeitioko Frontean kokatu ziren (bereziki Asterrikan), frankisten aurrerapena gelditzeko asmoz, eta han geratu ziren, gutxienez 1936ko azaroaren azken egunetara arte (Vargas, 2001:314-315).



5. 1936ko iraila: errepublikazaleen antolaketa militarra Lekeition

1936ko uztailaren 20tik Lea-Artibai eskualdea osatzen duten herriak (Garai hartan Markinako Barruti Judiziala), beraz, baita Lekeitio ere, Santiago Meaberen agindupean zeuden; bera zen plaza-delegatua, baita Errepublikaren Aldeko Batzordearen lehendakaria ere, eta bere ardurak ziren sektorea osatzen zuten herrietan orde-nu publikoa ziurtatzea, elikagaien banaketak antolatzea (bereziki errefuxiatuen mantenua ziurtatzea), eta altxamenduaren alde lanean ari ziren eskuindarrak salatzea, atxilotzea eta euren ondasunak bahitzea.¹³ Arazo eta hutsune asko zeuden (herrian zeuden errefuxiatu

¹³ 1936ko urriaren 18an, defentsa sailburuak, Jose Antonio Agirre Lehendakariak, frontetik hurbil zeuden herrietako antolaketa politiko-militarra zehazten zuen dekretu argitaratu zuen. Aginte gorena sektoreko komandanteak zuen, baina Plaza Delegatua, Errepublikaren Aldeko Batzordeak, Ondasunen Ikerketa Batzordeak, Udal-batzordeak eta udal-epaile eta -fiskalek ere aginpea eta konpetentziak zituzten.



Errefuxiatuak Lekeition

guztiek jaten ematea ez zen erraza), baina zibilei zegozkien gaiek agintaritzaz argia zuten.

Ikuspuntu militarretik, baina, gauzak hankaz gora zeuden, irailaren hasieran. Frankistak gero eta hurbilago zeuden, baina hauei aurre egiteko behar ziren azpiegitura militarrek oso ahulak ziren Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugan (Onaindia, 1980).

Beraz, irailaren erdi inguruan, agintari militarrek agertu ziren Lekeitio, eta ikuspuntu militarretik frontea hobeto antolatzen hasi ziren.

Hasteko, Ispasterreko Zubieta jauregia soldaduen kuartel bihurtu zuten.¹⁴ Lekeitioko

Konpainiako eliza¹⁵ eta Urberuagako bainuetxea (Markina)¹⁶ ere hartu zituzten Lekeitioko Frontean borrokan ari ziren soldaduen kuartel bihurtzeko. Autoak konpontzeko eta gordetzeko garajeak, armategiak edo kanoiak sartzeko lekuak (Zeletan zeuden kanoiak Lekeitiara jaisten zituztela gauero, eta biharamunean igotzen) ere bahitu zituzten. Sektoreko ospitalea Lekeitioko Uribarren jauregiaren (Zita enperatrizaren jauregia izenarekin ere ezaguna) beheko solairuan kokatu zuten¹⁷

(Untzeta, 1937 eta Talon, 1988:651).

Arazo asko zeuden ikuspuntu militarretik (nagusiena arma eta munizioa falta zen, men-debaldeko demokraziek ez zirelako armarik saltzen errepublikazaleei),¹⁸ baina, 1936ko irailaren erditik aurrera, frankistei aurre egiteko behar ziren azpiegitura eta antolaketa militarrek hobeagotu egin ziren.

¹⁴ Jauregiaren jabea, Maria Adan de Yarza Mazarredo, etxea uztera behartu zuten. Aurretik, ondasun guztiak Bilbora eramane zituzten; besteak beste, Goiaren hiru margolan. Auñamendi Eusko Entziklopedia: euskomedia@euskomedia.org © 2002-2009 Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa. Ospitaleko zuzendaria Jose Maria Galarza zen eta praktikantea Antonio Rodrigo (Untzeta, 1937).

¹⁵ Auñamendi Eusko Entziklopedia: <http://aunamendi.euskoi-kaskuntza.eus/es/lekeitio/ar-79286-54063/>

¹⁶ Euzkadiko Jaurlaritzak 1936ko urriaren hasieran bahitu zuen Urberuagako bainuetxea, frankistak Berriatuko mendi-tan agertu eta gutxira. Nagusiki, Markinako Frontean borrokatzen ari ziren soldadu errepublikazaleak kuartereratu zituzten bertan, baina baita Lekeitioko Frontean borrokatzen ari ziren ANV-ren Olabarri batailoia ere (Juaristi, 2011).

¹⁷ 1937ko apirilaren 27an, Flechas Negras brigada italiar-espainiar mistoak Lekeitio sartu baino bi egun aurretik, errepublikazaleek balioko gauza guztiak atera, eta sua eman zioten

jauregiari.

¹⁸ Bizkaira heldu zen armen lehen kargamentu handia Azteka baporearen bidez iritsi zen Santanderrera 1936ko irailaren 21ean. Arma hauek irailaren bukaeran banatu ziren Gipuzkoako Frontean (Lekeitio, Markina, Eibar eta Elgeta eta Elorrioko sektoreak). Iñaki Goigoganak zioen legez: "Azteka heldu aurretik, fronteko egoera etsigarria zen. Miliziarrek eta gudariek arma gabezia, nola hala, adore eta kemen handiz ordezkatu behar zuten. Herriak etengabe erortzen ziren eta gero eta errefuxiatu gehiago zihoazen Bizkaira" (Goigogana, 2014:17-18). Geroago, urriaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak Txekoslovakian eta Alemanian erosi zituen armak heldu ziren.



6. 1936ko irailaren bukaera: frankistak Bizkaiko mugan

Perez Salas-en agindupeko erreketek (Montejurra erreketetertzioa) Azkarate Gainera (Elgoibar) heldu ziren irailaren 21ean, eta errepublikazaleen aurka borrokatu ostean, Elgoibarren sartu ziren, arratsaldeko seiak eta erdiak inguruan (Barruso, 1996:266; Juaristi, 2014b).

Frankisten aurrerabidea ikusita, Elgoibarko abertzale eta ezkertiarrek, bereziki erantzukizun politikoak zituztenek (Errepublikaren Aldeko Batzordeetan aritutakoak, nagusiki), beldurtuta, ihes egin zuten. Batzuk Markinan gelditu ziren,¹⁹ baina gehienak Lekeition errefuxiatu ziren.²⁰

Irailaren 24an, frankistek eraso egin zuten Mutriku hartzeko helburuarekin, baina arrakastarik gabe. Borroketan, soldadu frankista asko hil ziren, eta hauek ezin izan zuten aurrera egin (Barruso, 1996:269). Edonola ere, hiru egunez, irailaren 27ra arte, frankistek erasotzen jarraitu zuten Mutriku hartzeko helburuarekin, eta errepublikazaleek, eraso gelditu ezinda, eta inguratuta gelditzeko beldurrez, atzera egin behar izan zuten. Irailaren 27an, frankistak Mutriku sartu ziren.

Irailaren 26an, Gipuzkoan borrokatzen aritutako miliziar asko Ondarroan gotortu ziren. Eta horrek ideologia eskuindarra zutenen beldurra areagotu zuen. Kontuan izan behar dugu, irailaren bukaeran, gerrak harrapatutako hainbat udatiar (madrildarrak, zaragozarrak...) bizi zela Ondarroan. Horietariko askok ideologia eskuindarra zuten, eta miliziarrek egin ziezaioketenaz beldur ziren. Horiek babesteko, EAJ-k Gordexola batailoia bidali zuen Ondarroara. Batailoia hau irailaren 26tik urriaren 4ra egon zen bertan, ordena publikoa ziurtatzen (Egiguren, 2009).

Lekeitioko eskuindarrak ere urduri zeuden irailaren bukaeran. Ondorioz, horietariko batzuk ihes egitea erabaki zuten. Adibidez, Leon

¹⁹ Markinan kaleak eta plazak zaintzen zituzten, eta ordena publikoa ziurtatzen zuten.

²⁰ Ixaka Azpiazu "Ixaka" idazle elgoibartarrak 1936ko urriaren 4an Euzkadi egunkarian idatzi zuenaren arabera, Elgoibarko Errepublikaren Aldeko Batzordeetan lanean aritu ziren gehienak Lekeition errefuxiatu ziren: "An eta emen, Bilbao, Gernika eta abar, badira bai, banaka elgoibartar batzuk, baña emen Lekeitio'n alkarturik geranak, degu Elgoibar erriaren izena, ez or banaka dabiltzanak". Lekeition Gipuzkoako euskal idazle ugari errefuxiatu zela ere aipatzen du: Luzear, Basarri, Tene, Zumaiaiko Arrate, Etxabe, Azkoitiko Urzelai eta abar.



Errefuxiatuak eta gudariak Lekeition

Okamikak, Primo de Riveraren diktadura garaian Lekeitioko alkate izandakoak, Donostiara ihes egin zuen irailaren bukaeran edo urriaren hasieran (Ocamica).

Erreketek eta falangistak Bizkaiko "atean" zeudela ikusita, Lekeitioko frontean zaitzen ari ziren soldaduak frontea sendotzeko ahaleginak areagotu zituzten. Lekeitioko komandantziatik aginduta, gudari, miliziar eta zibil boluntarioek lubakiak eta gotorlekuak sendotu zituzten Milloin, Kalamendin eta Asterrikan, fronteko lerroa arantzadun alanbrearekin itxi zuten, eta Laka Goikoan, Asterrikan²¹ eta Zeletan kanoiak jarri zituzten (Zeleta Plazakolatik Oletara doan bideko aldatsik gorenean dago). Horrez gain, edozenbat baserri bahitu zituzten, aginte eta kontrol postuak ezartzeko, eta fronteko lehen lerroan borrokatzen ari ziren gerlariei biziokiak eta gotorlekuak emateko. Milloi auzoan (Berriatua), Astobitza (hiru batailoia bizi ziren bertan, 300 bat miliziar), Eizmendi Altzanekua (aginte-postua), Idemine-ta, Laka Behekoa, Laka Erdikoa, Laka Goikoa eta Zeleta bahitu zituzten; Asterrika auzoan, Aldeko, Alipasolo, Anakabe Goikoa, Urkiaga Goikoa eta Urkiaga Behekoa (Juaristi, 2014a).

²¹ Asterrikan (Berriatua), 15 zentimetrotako Krupp erako kanoi bi zeuden (Vargas, datarik gabe-IV:273-274) eta Laka Goikoan eta Zeletan (Berriatuko Milloi auzoa) 75 milimetrotako Saint Chamond-Mondragon erako beste bi kanoi.

Osasun militarreko postuak ezartzeko ere hainbat eraikuntza bahitu zituzten Berriatuan: besteak beste, Anakabe Goikoa, Asterrikako auzo-eskola eta Portu izeneko tokia, Lekeitio eta Ondarroa artean.

Beraz, 1936ko urriaren hasieran, Lekeitioko Frontean "gerrako makinaria" prest zegoen Gipuzkoatik gelditu gabe zetozen erreketek aurre egiteko.



7. 1936ko urriak 4: erreketek eta falangisten eraso hasten da

Urriaren 3an tiro hotsak entzun ziren Ondarroako inguruetan. Erreketek eta falangistak hurbiltzen ari zire-naren seinale. Errepublikazaleak Lekeitioko bidetik atzera egiterakoan, hiru ondarrutar atxilotu zituzten, eta eskuindarrekin kolaboratzea leporatuz, biharamunean, urriaren 4an, hil zituzten Atxazpin. Egun berean, faxistek lau miliziar fusilatu zituzten Katei inguruetan. Isolatuta gelditu omen ziren, Pikupe inguruak babesteko ahaleginetan, eta atxilotu egin zituzten (<https://ondarroakohistoria.wordpress.com/2008/11/07/ii-errepublika-eta-gerrazibila-ondarroan/>).

1936ko urriaren 4ko goizean (Arrosario-ko Domeka), Benantzio Tutor teniente koronelaren agintepeko erreketek-tertzioek eta falangisten banderek (batailoiek) Ondarroako

ekialdea eta hegoaldea eta Berriatuko hegoaldea²² eskuratu zituzten. Larruskain (Markina-Xemein) inguruko mendi eta baserrietan ere (Amulategi, Kostola, Amallogarai Goikoa, Mandiola Goikoa...) jaun eta jabe ziren.

San Inazio tertzioko erreketek, San Migel tertzioko erreketek (Ondarroan kokatu ziren martxoaren 31ra arte) eta Karlos Ruizen mendeko gerlari falangistak izan ziren posizio horietan agertu ziren aurrenetarikoak (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007:187). Ondorioz, Ondarroan eta Berriatua inguruan zeuden soldadu errepublikazaleek atzera egin behar izan zuten, batzuk Amallo inguruko (Markina-Xemein) tontor eta baserrietaraino eta, beste batzuk, Kalamendi, Asterrika eta Milloiraino (Berriatua).

Urriaren lauko goizeko 11tan erreketek eta falangistak Ondarroako sarreran zeuden (frankistak arratsaldeko 13:00etatik 16:00etara eskuratu zuten Ondarroa), eta aurreko egunetan bezala, herritar gehiagok, beldurtuta, Lekeitiorentz ihes egin zuten.

Ondarroako Antiguako amaren elizako kanpaiek frankistei ongi-etorria ematen zieten momentuan, alde bateko eta besteko artilleriak jo eta ke ari ziren lanean. Errepublikazaleak Asterrikatik eta frankistak Santa Kruzetik, kanoikadak etengabeak ziren (<http://ondarroakohistoria.wordpress.com/2008/11/07/ii-errepublika-eta-gerra-zibila-ondarroan>).

Urriaren 4an, errepublikazaleek, atzeraka zihoazela, Plazakolako zubiaren (Markina-Xemein) zati bat lehertu zuten, frankisten aurreabidea galarazteko edo behintzat geldotzeko. Aurreko egunetan, Ondarroako zubi zaharra eta berria ere suntsitu zituzten.

Behin Ondarroa eta Berriatuko iparraldeko eta ekialdeko mendiak eta baserriak hartuta, bazirudien frankistak berehala sartuko zirela Berriatuko erdigunean, Erriberan; baina urriaren 4ko gaua mendian pasatu zuten. Iluntzean, egoera lasaia zela ikusita, soldadu errepublikazaleak bueltatu egin ziren ordu batzuk aurretik utzitako Milloiko, Kalamendiko eta Asterrika posizioetara.

Ondarroa inguruan zeuden soldadu errepublikazale guztiak ihes egin zuten Lekeitiorentz urriaren lauko goizean, baina Santander Batailoiko lau kide atxilotu zituzten: Manuel

Garcia, Gerardo Toalet, Victoriano Lopez eta Jose Lopez Fernandez. Urriaren 4tik 5era atxilotuta egon ziren, baina ihes egitea lortu zuten, eta ezkutututa ibili ostean, Lekeitioko Frontean agertu ziren urriaren zazpian (El Liberal, 1936-10-8).



8. Urriaren 5etik 10era: borroka gogorak Lekeitioko Frontean

1936ko urriaren 5ean, atsedena hartuta, Santa Gurutz ermitan (Ondarroa) eta Madalena inguruan (Berriatuko auzoa) gaua pasatu zuten erreketek eta falangistek aurrera egin zuten Bizkaia konkistatzeko helburuarekin.

Ondarroa inguruan lo egin zuten erreketek eta falangistak, bestalde, Asterrika auzoko Urkiaga Goikoaraino (Berriatua) heldu ziren urriaren 5eko arratsaldean. Edozelan ere, aurreko asteetan eraikitako lubaki eta babesguneetan gotortuta, miliziarrek eta gudariek aurre egin zieten, eta frankistek ezin izan zuten aurrera egin (Juaristi, 2014a).

Madalena inguruan gaua egindako frankistak ere aurrera egin zuten, eta Berriatuko Erriberaraino jaitsi ziren urriaren 5ean, eta Kalamendin, Zeletan eta Laka Goikoan zeuden miliziar eta gudariek erasotzen hasi ziren. Dena den, errepublikazaleek tinko aurre egin zieten frankistei, eta, ondorioz, berehala igo behar izan zuten Amallozur, Madalena eta Txindurriara (Berriatuko mendiak).

Urriaren 6an borrokak jarraitu zuten Berriatua inguruan. Hain zuzen ere, Barakaldo batailoiak parte hartu zuen borroka gogor hartan.²³

Urriaren 7an, Escañon eta Miranda guda-hontzi errepublikarrek Asterrika inguruan frankistek zituzten posizioak bonbardatu zituzten, frankistei kalte egiteko helburuarekin (Egaña, 2000, VI. Tomoa:24; Euzkadi, 1936-10-8). Laurogei bat kanoikada bota omen zituzten frankisten posizioetara, hauen atzerakada bultzatzeko asmoz, baina arrakastarik gabe. Egun hartan, Euskal Milizietako zapadore-minadoreen kapitaina, Jose Portu, zauritu zen (Euzkadi, 1936-10-8).²⁴

²³ <https://errepublikaplaza.wordpress.com/2016/09/15/batallon-28-baracaldo-martinez-aragon/>

²⁴ Geroago, Jose Portu Ingheniarien 1. Batailoi Mistoko (Manuel Andres Batailoia) komandantea izan zen (<http://www.errepublika.org/LAS-MILICIAS-REPUBLICANAS-EJERCITO-EUSKADI.htm>).

Urriaren 8a aurreko eguna baino lasaia izan zela dirudi (Euzkadi, 1936-10-9). Tiroketa arin batzuk besterik ez ziren izan (Euzkadi, 1936-10-9).

Urriaren 9an, hegazkin errepublikarrek Lekeitioko Frontean aritu ziren. Frankisten posizioak bonbardatu, frankistek kanoiak isilarazi zituzten, eta infanteria errepublikazaleak galdutako posizio batzuk (zehazki esanda, baserri batzuk) eskuratu ahal izan zituen (Euzkadi, 1936-10-10). Guk dakigula, gerrako helburuekin Lekeitioko Frontean hegazkinek egin zuten lehen bonbardaketa izan zen.

Badirudi Lekeitioko Frontean izan zen lehen borrokaldi hura urriaren 10ean bukatu zela. Izan ere, frankistek egun horretan utzi zuten Berriatuko hirigunea (Erribera), Eizmendi baserriaren ingurutik (Milloi auzoa) eraso gogor bat jasan ostean (baliteke eguraldi txarra ere atzera egiteko arrazoietariko bat izatea). Berriatua, beraz, errepublikaren aldekoen eskuetan gelditu zen.

Egun horretan, urriaren 10ean, Errepublikaren aldeko bi hegazkinek frankistek Ondarroan zituzten posizioak bonbardatu zituzten. Zehazki, Santa Kruz ermita eta Ondarroako gaina eraso zituzten, 10:30etan, 13:00etan eta 17:00etan. Prentsak zioenaren arabera, 150 bomba baino gehiago bota zituzten erreketek eta falangisten posizioetara. Horietariko bomba batek Mutriku eta Ondarroa artean zeuden kamioi batzuk lehertu omen zituen (El liberal, 1936-10-11; Euzkadi, 1936-10-11).

1936ko urriaren 5etik 10era bitarteko egunetan, erreketek eta falangistak gogor borrokatu ziren aurrera egiteko helburuarekin, baina Herri-milizietako soldaduek, UGTren batailoiak (Gonzalez Peñakoak, Indalecio Prietokoak eta Barakaldokoak), EAE-ANVko gudariek (Euzko Indarra eta Olabarri batailoietakoak), Castilla batailoiko miliziarrek (JSU - Juventud Socialista Unificadakoak) eta Saseta batailoiek (EAJ-koak) gogor borrokatu ziren horien aurreabidea galarazteko (El Liberal, 1936-10-8). Iruditzen zaigu hegazkin errepublikazaleen parte hartzeak ere (urriaren 9an eta 10ean) garrantzi handia izan zuela frankistak gelditzekoan.

1936ko urriaren 5etik 10era bitarteko borroketan batailoi ugari parte hartu zuten, baina hiru izan ziren lehen leerroan aritu zirenak, eta, ondorioz, arrisku handiena bizi izan zutenak:


²² Santa Kruz eta Madalena ermitak, Tontorramendi, Legarremendi, Amallozur eta Txindurri mendiak eta Berrosasi, Armetxa, Itxurriño, Legarrei, Arantzadi eta Pertike baserriak.


Comando

Italiako artxibo militarretan aurkitutako planoak

Organizzazione difensiva nemica
nel settore di Ondarroa.

Schizzo 1 bis





Lekeitioko plaza eta kaleak.
Luis Ceniga medikuak ateratako argazkiak

Luis Sansinenea²⁵ kapitainaren ardurapean zeuden EAE-ANV-ren bigarren batailoiko gudariak (Euzko Indarrakoe).

Franco kapitainaren ardurapean zegoen UGTren 2. batailoia (Indalecio Prieto batailoio-koek) (Vargas, 1994:54).

Eta Barakaldoko bigarren eta hirugarren batailoioak.

Hiru batailoio honetako soldaduek, erakutsi zuten tinkotasunaren ondorioz, agintari militarrek zoriondu egin zituzten (El liberal, 1936-10-8).



9. 1936ko urriaren 11: Lekeitioko Frontea egonkortzen da

Urriaren 11tik aurrera, aurreko egunetako borroka gogorak baretu egin ziren,²⁶ eta frontea egonkortu egin zen. Horrela, zazpi hilabetez, 1937ko apirilaren amaierara arte,²⁷ soldadu errepublikazaleak eta soldadu frankistak bata bestearen parean egon ziren, elkarri tirokatzen eta erasotzen (baita lubaki batetik bestera iraintzen ere), baina urriaren

²⁵ Luis Sansinenea Eusko Indarra EAE-ANVko batailoioaren kapitaina izan zen. Gara egunkarian (2009-08-22) irakurri zitekeen bezala: "Gerra Zibilak ia 27 urterekin harrapatu zuen Luis Sansinenea. Garai hartan bere lanbidearen oinarriak jartzeko ari ziren: hortzetako aparatuetan teknikaria zen, Donostiako Sansinenea sendiko hainbat partaide bezala. Gerra Zibilak dena hankaz gora bota zuen eta, hainbeste kasutan bezala, bere lanbide zibila bazterrean utzi eta armak hartu behar izan zituen. Nahiz eta instrukzio edo esperientzia militarrik ez izan, azkar elkartu zen kolpe espainiar faxistaren aurka bildu ziren Donostiako abertzale eta errepublikazaleekin. Berak ezker abertzalearen hautua egin zuen, EAE-ANVko bigarren batailoian, Eusko Indarran. Batailoio horretan pasa zituen Gerra Zibileko hainbat pasarte latz eta gogor: Donostia, Irun, Zubeltzu, Buruntza, Zarateko Bentak, Murumendi, Markina. 1936ko azaroan, Luis Sansinenea Eusko Indarreko kapitain graduatu zuen. Berarekin Joxe Azurmendi, Ramon Laniella, eta Sabino Oiarzabal kapitainak ziren. Batailoioaren komandantea Tomas Mitxelena zen. Geroago, Eusko Indarra Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan eta Albertiako frontean aritu zen. <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20090822/152986/eu/Luis-Sansinenea-Zurupe-EAE-ANVko-gudari-handi-baten-100-urte>

²⁶ Hara zer kontatzen zuen Jose Aseginolazak, 1936ko urriaren bigarren hamabostaldian Lekeitioko Frontera bidali zuten Saseta batailoiko gudariak: "Después de un descanso de 5 o 6 días, y equipados completamente, hicimos la primera salida desde Vizcaya al frente, y ocupamos las posiciones que dominaban el pueblo de Berriatua. Aunque días antes se habían librado allí combates durísimos con grandes pérdidas para los rebeldes que fueron rechazados hasta el otro lado del valle, al ocupar nosotros las lomas, la tranquilidad era completa. De vez en cuando el silvido de alguna bala nos hacía recordar que enfrente teníamos a nuestros enemigos. Aparte de esto, calma absoluta. A los quince días, sin tener que lamentar baja alguna, fuimos relevados" (Bidasoa, 2005:677).

²⁷ 1937ko apirilaren 26an, soldadu frankistak Eibarren, Ermuan, Zaldibarren, Berrizen eta Garain sartu ziren (Irazabal, 2012:210). Biharamunean, 27an, Markina-Xemeinen, Etxebarrin eta Berriatuan; 28an, Munitibarren eta 29an, Lekeition eta Durangon.

hasieran lortutako posizioetatik mugitu gabe.

Frankistek Ondarroa eta Berriatuko iparraldeko eta ekialdeko mendiak eta baserriak kontrolatzen zituzten,²⁸ baita Larruskain (Markina-Xemein) inguruko tontor eta baserriak ere (Amulategi, Kostola, Amallogarai Goikoa, Mandiola Goikoa...), eta Arrate, Urkaregi Gaina, San Migel Gaina eta Kalamua tontorra.

Errepublikazaleek, aldiz, Lekeitio, Berriatua eta Berriatuko mendebaldeko eta hegoaldeko mendi, auzo eta baserriak kontrolatzen zituzten (Asterrika eta Milloi auzoak eta Kalamendi), baita Itoiñomendia, Urberuaga, Akarregi mendia, Xemein, Markina, Etxebarria, Barinaga auzoa, Kalamua mendiaren oinak, Akondia eta Urko mendiak. Posizio askotan, batzuegandik besteengana, kilometro bat baino gutxiago zegoen (Juaristi, 2014a).

1936ko urritik aurrera hiru ziren Bizkaia babesten zuten fronteak: Gipuzkoako frontea, Arabako frontea eta Burgoseko frontea.²⁹

Gipuzkoako frontea Lekeitio ingurutik Aramaio ingurura arte zihoan, eta Lekeitio, Markina, Eibar, Elgeta eta Elorrioko sektoreek osatzen zuten. Gipuzkoako Frontearen agintaritzak Amorebieta-Etxanon zegoen, eta Joakin Vidal Munarriz zen koronela.

Lekeitioko sektorea Asterrikan hasten zen (horregatik, hain zuzen ere, batzuk Asterrikako Frontea deitzen zioten), Kalamenditik eta Milloitik pasatzen, eta Itoinomendiraino heltzen. Gipuzkoako Frontearen zati hau Markinako eta, batez ere, Berriatuko lurretan zegoen, baina Lekeitioko Sektorea edo Frontea izenarekin ezagutzen zen, komandantzia Lekeition zegoelako, baita soldaduentzako kuartelak eta odol ospitalea ere (Talon, 1988:651).



10. Lekeitioko Fronteko agintari militar errepublikazaleak

Lekeitioko Fronteak agintari militar asko izan zituen frontea geldirik egon zen zazpi hilabeteetan. 1936ko urriaren 5etik 10era izan ziren borroketan, agintaritzak militarra Eugenio Garcia Munilla Guardia Nazio-

²⁸ Ondarroako Zezermendi eta Arteta baserriak eta Berriatuko Ikatza eta Arrixa baserriak kontrolatzen zituzten Asterrika auzoan; eta Legarrendia, Amalozur eta Txindurri mendiak, Madalenako ermita eta Legarrei, Arantzadi eta Pertika baserriak Madalena auzoan (Berriatua).

²⁹ Arabako frontea Aramaiotik Gorbeia mendiaren mendebalderaino zihoan; Burgosekoa, Gorbeia ingurutik Enkarterriaraino.

nal Errepublikarraren buruzagiaren, Manuel Asarta (Alderdi Komunistako kidea) eta Placer milizietako komandanteen, Payret tenientearen eta Salvador Gomez Buillon³⁰ ingeniarien kapitainaren eskuetan egon zen. Dena dela, urriaren bukaeratik abenduaren 7ra arte, Juul Christianaes belgikarra izan zen sektoreko komandantea (El Liberal, 1936-10-21).

1936ko abenduan, Ledesma Guardia Zibileko tenienteak hartu zuen komandantziaren ardura.³¹ Ledesma Markinako Fronteko buru militarra izan zen 1936ko gabonak arte, eta gero Lekeitioko komandante egon zuten. Postu horretan ez zen luzaroan egon; 1937ko otsailaren 19an, frankisten aldera pasatu zelako, Markinako eta Lekeitioko fronteei buruzko informazio pila frankistek pasatuz (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006:78).

1937ko otsailan eta martxoan, sektoreko komandantea German Ollero Morente Guardia Zibila izan zen.³²



11. Frankisten antolaketak militarra Lekeitioko Frontean


Frontea geldirik egon zen zazpi hilabeteetan (1936ko urriaren hasieratik 1937ko apirilaren bukaerara arte), lau izan ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako fronteetan guduak ziren Nafarroako brigadak. Lau brigadok iparraldeko armada nazionaleko seigarren dibisioko (Jose López-Pinto zen jenerala, eta kuartel nagusia Burgosen zegoen) lehen taldearen (Jose Solchaga zen jenerala, eta kuartel nagusia Burgosen zegoen) parte ziren. Lekeitioko Fronteko posizioetan, bigarren brigadako soldaduak gudukatu ziren, nagusiki.

Bigarren brigadaren burua Cayuela koronela zen, eta bere kuartel nagusia Deban zegoen.

³⁰ Espainiako Defentsa ministerioaren arabera, Salvador Gomez Bullón, Alejandro Goikoetxearekin batera, Euskadiko Armadaren ingeniarien burua zen (Egafía, 2009: 40-41).

³¹ Ledesma teniente Fernando Ledesma Bartret (Toledo, 1939) politikari sozialistaren aita izan zen. Fernando Ledesma justizia ministroa izan zen Felipe Gonzalezen agintaldian (1982-1988).

³² Germán Ollero Morente (Porcuna, Jaen, 1892 – Madril, 1967) Madril zegoen 1936an. Gerra hasi zenean, Errepublikaren alde agertu zen, eta Bizkaiko frontera bidali zuten. Lekeitioko komandantea izan zen 1937ko apirilaren bukaerara arte, eta 1937ko apirilaren 26an, I. dibisioko agintaritzak eman zioten. Guztira lau brigada zeuden bere mendean (Urgoitia, data gabe: 229). Gero Valentziara eraman zuten, eta 1939an, komandante egon zuten. 1939ko martxoaren 29an, armada frankistari entregatu zen Balentzian, eta epaiketa egin ostean, hainbat kontzentrazio eremu eta kartzeletatik pasatu zen (ABC, 1967ko urriaren 15eko nekrologika).



Brigada honek 4.654 soldadu zituen, Asterrikatik (Berriatua) Urkaregi ingurura (Elgoibar) arteko kokaguneetan (hau da, Lekeitioko eta Markinako Fronteetan).

Bigarren brigadak bi brigada-erdi zituen. Lekeitioko Frontean, lehen brigada-erdiko erreketek eta falangistak gudukatu ziren, Benantzio Tutor teniente koronelaren ardurapean (OHZ eta Ondarroako Historiazaleak, 2007:187). Lehen brigada-erdi hau erreketean 2 tertziok eta falangisten bi banderak (batailoiak) osatzen zuten:

1. San Inazio erreketek-tertzioa (2º Tercio de Requetés de Guipuzcoa) Lekeitioko Frontera heldu ziren lehenengotariko soldadu frankistak izan ziren. 1936ko urriaren 4ko goizean (Arrosarioko Domeka) azaldu ziren Berriatuko Madalena auzora, eta Ondarroa hartzen ere parte hartu zuten. Kuartel nagusia Deban zuten. Urola araneke herritarrez osaturik zegoen, nagusiki.


2. San Migel erreketek-tertzioa (4º Tercio de Requetés de Navarra) Leitzan sortu zen, 450 soldadu zituen (Legarra Belastegi, 2008:348-349) eta Santo Domingo abizeneko norbait zen komandantea. Tertzio honetako soldaduak izan ziren Ondarroako hirigunean sartu ziren lehenak urriaren 4an, arratsaldeko 13:00etatik 16:00etara. Nafarrak ez ezik, donostiarrak eta tolosarrak ere parte hartu zuten tertzioan (Errazkin, 2013-I:55; Legarra Belastegi, 2008:348-349).

3. Falangista nafarren 1. eta 3. banderak: Nafarroako falangisten banderak ere borrokatu ziren Lekeitioko Frontean. Hain justu ere, Karlos Ruiz kapitainaren mendeko falangisten bi konpainiak Asterrrikako kokaguneak zaintzen zituzten. Hauek ere Ondarroan zuten kuartela (Legarra Belastegi, 2008:348-349 eta OHZ eta Lan Taldeko Ki-deak, 2007:187-189).

Erreketek eta falangista hauek guztiak martxoaren 31ra arte egon ziren Lekeitioko Frontean borrokatzen (Arostegi, 1991, bigarren tomoa:70-71), eta 1937ko apirilaren 2an Piazzoni jeneralaren Gezi Beltzak brigada italiar-espainiar mistoak hartu zituen hauen posizioak. Brigada honek sei batailoie eta artilleria talde bi zituen, eta guztira 8.000 soldadu.

Errepublikaren aldeko batailoiek bezala, armada frankistak ere zapadoreen eta transmisio, osasun eta artilleria unitateen laguntza zuten. Erreketean artilleria Arantzadi baserriaren alboan eta Santa Kruz ermitaren inguruan egon zen; eta gauean, Armetxa baserri ingurura jaisten zituzten. Ondarroa eta Lekeitioren arteko bidean ere, karabineroen kuartelean, kanoiak kokatu zituzten.

Frankistek ere hainbat lubaki eraiki zituzten Lekeitioko Frontean (Txindurrimendin, Legarreimendin edo Asterrikan). Edozelan



Italiako artxibo militarretan aurkitutako planoa.

ere, alde bateko eta besteko lubakiak ikusi zituztenek diotenez, frankistenak errepublikazaleenak baino sakonera eta babes gutxiagoak ziren. Itxura denez, zeuden posizioetatik aurrera egingo zutenaren esperantzarekin egindakoak ziren.



12. 1936 urriaren 11tik 20ra: lasaitasuna Lekeitioko Frontean

Esan bezala, urriaren 5etik 10erako borroka gogorak izan ziren Lekeitioko Frontean. Hurrengo 10 egunak, baina, lasaiagoak izan ziren (Bidasoa, 2005:677). Tiroketak eta bonbardaketa batzuk izan ziren, baina, oro har, borrokaren intentsitatea jaitsi egin zen.

Urriaren 12an, hegazkin errepublikarrek Lekeitioko Frontean frankistek zituzten posizioak bonbardatu zituzten (El Liberal, 1936-

10-13). Lekeitioko Frontean hegazkinen bidez egin zen hirugarren bonbardaketa izan zen.

Urriaren 13an, 14an eta 15ean, tiroketa gutxi batzuk izan ziren Asterrikan eta Itoiñomendian (Euzkadi, 1936-10-14; Euzkadi, 1936-10-15).

Urriaren 17an, hegazkin frankistak Lekeitioko Frontea, Ondarroa inguruan, zelatatzen aritu ziren (Goiozana, 2017).

Egoera lasaiagoa izanik, urriaren 15ean, goizeko bederatzietan, Mikel Amuskizar gudari zarauztarraren aldeko hileta elizkizuna egin zen Lekeitioko Andra Mariaren Jasokundearen elizan. Lekeitioko herritarrek, EAJ-ko politikariak eta gudariak parte hartu zuten elizkizunearan (Euzkadi, 1936-10-16).³³

³³ Mikel Amuskibar zarauztarra zen, eta Loiola Batailoiko gudaria. 1936ko abuztuaren lehen egunetan, Zarauzko beste 62 gazterekin batera, boluntario joan zen Loiolako santutegira,

Urriaren 19an, bestalde, urriaren hasierako borroketan Lekeitioko Frontean hil zen UGT-3 batailoiko laugarren konpainiako Rikardo Bilbao miliziarren aldeko omenaldia egin zen Lekeitioko kanposantuan. (El Liberal, 1936-10-21).



13. Urriak 21 (eguztana): bou frankisten aurkako eraso Lekeitioko eta Ondarroa parean

10 eguneko lasaitasuna 1936ko urriaren 21ean bukatu zen. Hain zuzen ere,

frankisten aurka borrokatzeko prestatzera. Eusko Gudarosteko lehen konpainiaren sorreran parte hartu zuen (Anaitasuna zuen izena konpainia horrek, baina Zarautz ezizenez ezagutzen zen, zarauztarrak nagusi zirelako bertan). Gipuzkoa babesten hil zen (Etxeberria, 2013-2-2: <http://www.diariovasco.com/v/20130202/costa-urola/fallece-ultimo-gudari-zarauztarra-20130202.html> eta <https://zarautz1936.wordpress.com/2014/09/19/loiola-62-gazte-zarauztarren-gerra-eskola/>).

errepublikazaleek eraso orokor bat antolatu zuten Eibar, Markina eta Lekeitioko Fronteetan.

Alde batetik, goizez eta arratsalde, hegazkin errepublikarrek Kalamuaren oinetan eta Larruskainen (Markina) frankistek zituzten posizioak bonbardatu zituzten (El Liberal, 1936-10-22).

Bestetik, goizeko bederatzia eta hogeita bostean, lau hegazkin errepublikarrek Lekeitio eta Ondarroa parean zeuden frankisten bost bou³⁴ bonbardatu zituzten: horietariko bi ondoratu eta bat sutan utzi zuten. Badirudi ondoratutako eta sutan utzitako bouetako marinela hil egin zirela (El liberal, 1936-10-22; El Nervión 1936-10-24; Euzkadi, 1936-10-24). Onik gelditu ziren bi bou-ak arrantzan ari ziren Lekeitioko bi itsasontzi eta 12 bat arrantzale (tartean, Lekeition errefuxiatuta zeuden Ondarroako arrantzale batzuk ere) atxilotu zituzten, eta Pasaia portura eraman. Egun batzuk atxilotuta egin ostean, urriaren 24an libre utzi zituzten. Dena dela, frankistak bi itsasontzietariko batekin gelditu ziren; hain zuzen ere, Lekeitioko alkatearen, Mariano Adan de Yarzaren, itsasontziarekin (Euzkadi, 1936-10-25; El Liberal 1936-10-25).

Hirugarrenik, tropa errepublikarrek eraso egin zuten Akarregi mendiaren (Markina-Xemein) magalean dagoen Egixarre baserriko lurretan. Batzuen ustez, gudaldi honetan 60 soldadu errepublikazale baino gehiago hil ziren (Talon, 1988: 913). Beste batzuek diote 40 soldadu Errepublikar hil zirela (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 80).³⁵ Herritarren arabera, erreketek ere hildako ugari izan zituzten.

Arratsaldean bertan, Egixarren zauritutako hainbat soldadu hil ziren, baina ez erasoan izandako zauriengatik, baizik eta, arratsaldean, hegazkin frankistek eraikina bonbardatu zutelako (Talon, 1988: 913). Frankistek berehala mendekatu nahi izan zituzten goizean izan zituzten hildakoak. Bonbardaketa horren ondorioz hil zen Andres Lopez Uranga Euskal Milizietako medikua (Untzeta, 1937).³⁶

³⁴ Bouak gerrarako prestatutako (kanoiak eta metrailadoreak ezartzen zitzaizkien) arrantzarako itsasontziak ziren. Gehienak bakailaoren arrantzarako ontziak ziren, egitura sendoa zutelako. Errepublikaren aldekoek zein frankistek erabili zituzten.

³⁵ Egixarren zauritu ostean hil zen handik lau egunetara, Fulgencio Mateos buruzagi sozialista.

³⁶ Andres López Uranga Gipuzkoakoan zauritutakoekin lan egin zuen lehenengo, eta, Gipuzkoa frankisten eskuetan jausi



14. 1936ko urriak 22 (egue-na): Lekeitioren aurkako aireko lehen bonbardaketa

1936ko urriaren 5etik 21era arte, hainbat bonbardaketa, tiroketa eta borroka izan ziren Lekeitioko Frontean, baina bi aste horietan Lekeitioko herriak ez zuen jasan inolako kalterik. Gerra hirigunetik kilometro batzuetara gertatzen ari zen, eta lekeitiarrak salbu bizi ziren. Egoera 1936ko urriaren 22an aldatu zen.

Egun horretako arratsaldeko laurak inguruan, Caproni³⁷ markako hegazkin batek hainbat bomba botatu zituen Lekeitioko kanpoko aldean, eta lau pertsona hil zituen:

Alberto Iriondo, 12 urtekoa, elgoibartarra eta Lekeition errefuxiatua zegoena.

Maria Arrasate 21 urtekoa eta Lekeitiokoa.

Miren Munitiz Azkorra 13 urtekoa eta Algotarkoa, Lekeition errefuxiatua zegoena.

Maria Belen Munitiz Azkorra, 8 urtekoa, Algotarkoa (zaurituta gelditu zen, baina biharamunean, 23an, hil zen Basurtoko ospitalean).

Hildakoez gain, erasoak bost (beste iturri batzuen arabera zortzi) zauritu ere eragin zituen (El liberal, 2016-10-24; Euzkadi, 2016-10-24).³⁸

Itxura denez, “Caproni” markako hegazkina (El Liberal egunkariak “aparato extranjerio”) arratsaldeko lauretan agertu zen, eta hirigunearen gainetik altuera gutxira hegan eginenez, herriaren kanpoko aldera joan zen. Paseatzen ari zen jendearen gainean bonbak botatu, eta lau pertsona hil eta zortzi zauritu zituen (El liberal, 2016-10-25).

Badirudi “Caproni” hura izan zela (Euzkadi, 1936-10-23) arratsalde hartan bertan, Milloi auzoko (Berriatua) Eizmendi Altzanekua baserriaren inguruak bonbardatu zituena.³⁹

zenez, Markinako Frontera etorri zen. Markinako Erregistro Zibilaren arabera, Patrokua jauregiko ospitalean hil zen, urriaren 22an, metrailak eragin zizkion zauriengatik. Markina-Xemeingo kanposantuan lurperatu zuten. Untzetak diotenaren arabera, urriaren 21eko arratsaldean hil zen (Untzeta, 1937).

³⁷ Gure ustez, urriaren zehar Markinan eta Lekeition ibili zen “Capronia” Caproni-Bergamaschi Ca.310 Libeccio (italiarrez: “Hego-mendebaldeko Haizea”) motako hegazkin italiarra zen. Bi motor zituen, eta miaketarako prestatutako hegazkina zen. Lehen aldiz 1936an erabili zen, hain zuzen ere, Gerra Zibilean, eta, geroago, baita Libian, bigarren Mundu Gerran. 1948. urtera arte erabili zen.

³⁸ Horietariko biren izenak ezagutzen ditugu: Begoña Munitiz Azkorra eta Purita Munitiz Hernández.

³⁹ Milloi auzoak 26 baserri ditu, eta 1936ko irailean, hauek baserri asko militar errepublikazaleen eskuetan gelditu

Ostean, “Caproniak” Markina ere bonbardatu zuen, eta Isidra Ugartetxea Ugarteburu xemeindarra hil zuen (Juaristi, 2011).

1936ko urriaren bukaeran, “Capronia” oso famatua egin zen Lea-Artibai inguruan. Izan ere, hainbat aldiz bonbardatu zituen Markina eta Lekeitio. Bere motorrak ateratzen zuen zaratagatik, herritarrek “runrun” izenarekin ezagutzen zuten.⁴⁰



15. 1936ko urriaren 23 (barikua): bonbardaketa Lekeition eta Mendexan

Urriaren 23ko goizeko 11:00etan, aurreko eguneko “Caproni” markako hegazkina (batzuen arabera bi hegazkin izan ziren) Lekeitioko zeru gainean agertu zen. Hegazkinak zortzi bomba botatu zituen: hiru portuan jauzi ziren, bat Zubieta jauregiaren alboan (kontuan izan bertan zegoela soldaduen kuartela) eta beste hiru edo lau Mendexako lurretan.

Mendexan botatu zituen bonbek baserri bat apurtu zuten, baina ez zuen kalte pertsonalik eragin (El Nervion, 1936-10-24), ezta Zubieta jauregiaren alboan jauzi zirenek ere. Dena dela, Lekeitioko Apaizen Kaian (Hegoaldeko dikearen hasieran) jauzi ziren bonbek (horietariko bat potentzia handikoa) pertsona bat hil zuten. Hain zuzen ere, Martin de Zendoia “Kampelo” 38 urtetako lekeitiarra hil zen, portuan arrantzan ari zela, metrailak buruan zauritu ostean.

Portuan jauzi ziren bonbek bederatziz zauritu ere eragin zituzten (Euzkadi, 1936-10-24).⁴¹

11:30etan, hegazkina Markinan agertu zen, eta lau bomba botatu zituen bertan (Euzkadi, 1936-10-24). Bonbetariko batek Dolores (Lolita) Garate Bru (1920-1936) hil zuen (Er-

ziren (Lopez, 2008:8-9). Eizmendi Altzanekua horietariko baserri bat izan zen. Bertan, agintari militar errepublikazaleen aginte-postua egon zen (Ugarteburu, 2008:34).

⁴⁰ Txomin Ona indiak zioen bezala: “Al formarse los frentes en el sector de Markina, comenzaron a llegar los aviones de bombardeo fascistas. Los primeros días de Octubre venía un Caproni, que volaba a placer sin enemigos de ninguna clase. Por el ruido característico de sus motores se le denominó el RUMRUM” (Ona india, 1937:9).

⁴¹ Hona hemen zaurituen izenak: Bizente Gomez Aizpurua, Zumaiaiko errefuxiatua; Joaquin Anakabe Zabala, 67 urtekoa; Felix Txopitea Meabe, 41 urtekoa; Maximino Molo Alonso, ANV-ko gudaria; Manuel Lertxundi, 28 urtekoa, Donostiakoa; Jose Ramon Gomez Zabaleta, 47 urtekoa, Donostiakoa; Miguel Anakabe, Lekeitiokoa; Rikardo Correa Lenitz, 30 urtekoa; Pedro Basterrika Iturzaeta, 89 urtekoa; eta Jose Maria de Garbarain, Pasaia San Pedrokoa.

dotza zesta-punta pilotari famatuaren alaba), eta bost pertsona zauritu (tartean hildakoaren senide bat eta etxeko zerbitzari bat) (Juaristi, 2011).

Ostean, hegazkinak Eibar bonbardatu zuen, baina ez zuen inor zauritu.

Urriaren 23an bertan, 22an eta 23an hildako bost pertsonen aldeko hileta elizkizuna egin zen arratsaldeko 5etan. Telesforo Monzonek (Herri-zaintza sailburuak) eta Enrike Oruetak (Segurtasun Zuzendariordeak) parte hartu zuten hiletan. Gorpuak kanposantura eramaterakoan, manifestazio handi bat egin zen. Manifestazioaren aurreko aldean alderdi politiko guztietako ordezkariak joan ziren, euren banderekin (El Liberal, 1936-10-25; Euzkadi, 1936-10-27).



16. Urriak 24 (zapatua): errepublikarrek Ondarroa bonbardatzen dute

Egun hartan, hegazkin frankistak ez ziren agertu Lekeitioko zeru gainean, baina Errepublikaren aldeko hegazkinak Ondarroa bonbardatu zuten (Euzkadi, 1936-10-25). Ondorioz, 15 urteko Isabel Egia Olabarria xemeindarra hil zen. Isabel neska-meia lanetan ari zen Ondarroan (Egaña, 2000, VI. tomoa: 283; Juaristi, 2011).



17. Urriak 25 (igandea): frankistek Lekeitio Bonbardatzen dute

Egun hartako arratsaldeko hirurak eta erdietan, hegazkin frankistak lau bonba bota zituzten Lekeitioan, eta bi pertsona arinki zauritu zituzten (Euzkadi, 1936-10-27). Bonbetariko batzuk odol ospitalearen inguruan jauzi ziren. Hegazkinok Markinako kanpoko aldea ere bonbardatu zuten arratsalde hartan (El liberal, 1936-10-27).



18. Urriak 26 (astelehena): frankistek Lekeitio bonbardatu zuten

Urriaren 26ko goizean ere, hegazkin frankistek Lekeitio bonbardatu zuten, baina ez zuten inolako kalterik eragin (El Liberal, 1936-10-27). Guztira, urriaren 25ean eta 26an, zazpi bat bonba jauzi ziren Lekeitioko ospitalearen inguruan, leihoetako kristal ugari apurtuz (El Liberal, 1936-11-5).

Hegazkin frankistek Markinako eta Lekeitioko fronteak ere eraso zituzten (bonbak

jaurtitzeaz gain, metrailadorea ere erabili zuten). Ondorioz, pertsona bat hil zen eta bi zauritu (Juaristi, 2011).⁴²

Egun horretan, 26an, hegazkin errepublikazale batek Gasturu eta Bidegorri baserrien inguruak (Berriatuko Madalena auzoan daude) bonbardatu zituen, eta metrailak Gasturu baserriko 22 urteko mutila, Doroteo Elordi, hil zuen (Egaña, 2000, VI. Tomoa:281; Juaristi, 2014a eta <http://www.ahotsak.com/berriatua/hizlariak/miguel-elordi-egurrola/>).⁴³



19. Urriak 27 (martitzena): hegazkin frankistek Mendexa bonbardatu zuten

Hegazkin frankistek Mendexa bonbardatu zuten (El liberal, 1936-10-31), baita Markina ere.⁴⁴ Etxebarrian Joan Jose Idoeta (Etxebarria, 1875 – Etxebarria, 1936) hil zen, artileri frankistak jaurtitako bonben ondorioz.⁴⁵



20. Urriak 29 (eguna): frankistek Lekeitio bonbardatu zuten

Urriaren 28an eta 30ean, hegazkin frankistek ez zuten Lekeitio bonbardatu -- ziur asko eguraldi txarra egiten zuelako (Goiogana, 2017)--, baina bai bonbardatu zuten 29an. Egun horretan, goizeko 10:30ak inguruan, hegazkin frankistek sei edo zazpi bonba bota omen zituzten. Bost bonba mojen komentuan jauzi ziren. Herriko eraikin batzuk kalteak jasan omen zituzten, baina inor ez zen zauritu (Euzkadi, 1936-10-30).

Berrero, arratsaldeko 16:00etan, hegazkin frankista bat agertu zen, baina errepublikaren aldeko bi hegazkin agertu ziren (frankisten

⁴² Hildakoa 43 urteko Domingo Gabilondo "Txomin Beltza", elgoibartarra, izan zen. Basurtuko ospitalera eraman zuten, baina handik hiru egunetara hil zen. Zaurituak Silbin Gabilondo eta Iñaki Konde Isasmendi izan ziren. (Onaindia, 1937:10; Euzkadi, 1936-10-30; El liberal, 1936-10-31; Euzkadi, 1936-11-1; eta <http://www.elgoibar1936.com/>)

⁴³ Hil zuten tokian bertan, 2 metro inguru dituen harrizko gurutzea jarri zuten, oroigarri. Gurutzearen oinean zera dago idatzita: "Aquí murió Doroteo Elordi Egurrola por la abiación --"abiación" hitza modu horretan dago idatzita-- roja el 26 de octubre de 1936 a la edad de 22 años. F.T.N."

⁴⁴ Lau bonba Odol ospitalea zegoen jauregiko (Patrokua jauregia) lorategian jauzi ziren.

⁴⁵ Bonbardaketa horretan, Martzel Monterrei eta Joan Jose Idoetaren emaztea ere zauritu ziren (ABC egunkaria, 1936-10-30:11; Juaristi, 2011; Zubikarai eta Fdez. Eiguren, 1989: 137).

arabera, horietariko bat Niewport erakoa zen (Goiogana, 2017)), eta hegazkin frankistak ihes egin zuen Donostia ingurura. Errepublikaren aldeko hegazkinak 40 bat bonba bota zituzten frankistek zeuden posizioetan (Euzkadi, 1936-10-31)

Egun hartan, 29an, Defentsa sailburuaren, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren, agindu batek gerrako fronteko lehen lerroan zeuden herrien berri eman zuen. Lekeitio zerrendan agertzen zen.

Ondorioak

Gerra hasi zenetik, 1936ko uztailaren 17tik, abuztuaren bukaerara arteko egunak lasaia izan ziren Lekeition. Jendeak eguneroko bizimoduarekin jarraitu zuen.

Abuztuaren bukaeran, lehen soldadu informatuak agertu ziren herrian, eta irailean zehar soldadu errepublikar gehiago agertu ziren. Guztien asmoa zen Gipuzkoatik gelditu gabe zetozen frankistak gelditzeko frontea antolatzea. Apurka-apurka, Lekeitioko Frontea antolatu zen.

Soldaduak ez ezik, errefuxiatuak ere ugaritzen hasi ziren irailaren hasieran. Armaturiko miliziarrek eta gudariak kaleetan gora eta behera, kamioi militarrek, kanoiak, errefuxiatuak... herriko bizimodua goitik behera aldatzen hasi zen.

Gerra giroa nabaria zen 1936ko irailaren bukaeran. Dena dela, gerra zuzena ez zen heldu Lekeitioko Frontera 1936ko urriaren 5era arte. Egun horretatik urriaren 10era arte, alde bateko eta besteko infanteria eta artilleria gogor aritu ziren bata bestea erasotzen. Tiroketak eta kanoien arteko borrokatu ugariak izan ziren Asterrikatik Itoinmendirainoko posizioetan, eta, gutxienez 3 soldadu errepublikar hil ziren. Ez dakigu zenbakirik, baina uste dugu erreketek eta falangistek ere heriotza ugari izan zituztela.

Hurrengo egunetan ere jarraitu zuten tiroketak eta kanoikadak, baina intentsitate txikiagoarekin.

Lekeitioko hirigunetik kilometro gutxira, gogor borrokatzen ari ziren, eta Lekeition soldaduen mugimendu handia zegoen. Dena dela, urriaren erdi inguruan Lekeition bertan ez zegoen gerrarik.

Egoera urriaren 22an aldatu zen. Egun horretan hasita, eta aste betez, frankistek sei aldiz bonbardatu zuten herria (22an, 23an, 25ean, 26an eta 29an –azken egun horretan bi aldiz, goizean eta arratsaldean–) eta birritan Mendexa (23an eta 27an). Bonbardaketa horien ondorioz, bost zibil hil ziren (22an eta 23an) eta 16 bat zauritu (22an, 23an eta 25ean).⁴⁶

Urriaren 5etik aurrera Lekeitioko plaza militarra zen. Errepublikarrek bertan zituzten

sektoreko komandantzia, ospitalea, kuartelak edo armategiak. Pentsa genezake, Lekeitioren aurkako hegazkin frankisten bonbardaketek errepublikarrak militarri ahultzeko helburua zutela; alegia, bonbardaketa taktikoak zirela.

Bestetik, gure ustea da bonbardaketok helburu estrategikoak ere bazituztela. Hain zuzen ere, errepublikarrak ekonomikoki ahuldu, herriko azpiegiturak suntsitu eta zibilen eta soldaduen morala ahuldu nahi zuten, gerra bukatzea behartzeko.

Edozelan ere, iruditzen zaigu (hipotesi bat da hau) paseatzen ari ziren edo portuan arrantzan ari ziren herritar zibilen aurkako bonbardaketen helburu garrantzitsuena mendekua izan zela. Gure iritziz, batez ere urriaren 22an eta 23 zibilen aurka izan ziren bonbardaketek, lekeitiarrak zigortu nahi izan zituzten, aurreko egunean, urriaren 21ean, Lekeitio parean, errepublikaren aldeko hegazkinek bi bou frankista ondoratu zituztelako eta bat sutan utzi, hainbat marinela frankista hilez. Alegia, Lekeitio bonbardatzeko arrazoi taktiko eta estrategikoez gain, bengantza arrazoiak ere bazeuden.



Gudariak Lekeitioko frontean.
Argazkia: Sabino Arana Fundazioa

⁴⁶ Azaroaren 5ean Euzkadi egunkarian irakurri zitekeen bezala: "Pazista egazkinak, gorrotoaren dunbadak herri paketsu oni ezarri diote. Egun bat eta bestean, zazpi egunetan sei bider. Eta gizon, umetxo, andereno, emakumeak il, gaxoak. Zer erru izan dute oiek ortarako?" (Euzkadi, 1936-11-5).

Bibliografía

Agirre, J. (2005): "José María de Gamboa. II. Mundu Gerrako gudaria". Euskonews, 284. Zenbakia (http://www.euskonews.com/0284zkb/elkar_eu.html).

Aizpuru, M., Apaolaza, U., Gomez, J. M. eta Odriozola, J. (2007): *El otoño de 1936 en Guipúzcoa: los fusilamientos de Hernani*. Alberdania, Irun.

Arostegui, J. (1991): *Los combatientes carlista en la guerra civil española 1936-1937* (Bi tomo). Fundación Hernando de Larramendi, Aportes XIX, Madril.

Barruso, P. (1996): *Verano y revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa*. R&B edizioak, Donostia.

Basaldua, P. (2017): *Euzkadi, la guerra antes del Estatuto. Desde la Secretaría del Gobierno de Vizcaya*. IVAP, Bilbao.

Bidasoa (2005): *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Bidasoa. Instituto de Historia Contemporánea. Hegoa. Frantzia.

Camino, I. (1985): *Nacionalistas 1903-1923*. Alberdi Argitaldaria, Bilbo.

Egaña, I. (Zuzendaria) (2000): *1936 Guerra Civil en Euskal Herria*. Zortzi Ale. Aralar Liburuak, Andoain.

Egaña, I. (2009): *Los crímenes de Franco en Euskal Herria, 1936-1940*. Txalaparta, Tafalla.

Egiguren, F. (2009): *Felipe Egiguren. Benetako abertzalea. Un abertzale integro*. Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.

Errazkin, M. (2011): *Memoriaren izenak. Errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta Lehen Frankismo garaian (1936-1945)*. Aranzadi, Donostia.

Etxeberría, A. (2013-2-2): "Fallece el último zarauztarra del batallón Loiola", El Diario Vasco: (<http://www.diariovasco.com/v/20130202/costa-urola/fallece-ultimo-gudari-zarauztarra-20130202.html>).

Gamboa, Carmen de (2004): *Galerna. Recuerdos de mi niñez en tiempos de guerra*. Alberdania, Irun.

Goigana, I. (2010): "Euskal erbesteratuen mundura hurbiltze biografiko zenbait". Chueca, J. (koordinatzailea): *Lau Haizetara. Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz*. UEU, Bilbo.

Goigana, I. (2014): "Gerrako lehen hilabeteak" in P. Juaristi; J. Chueca; F. Etxebarria; A. Esteban y I. Goigana, *Goazen Gudari Danok Askatasun-Bidean. Zirardamendi-Aiastia (San Migel) – Elgoibar, 1936*. Ayuntamiento de Elgoibar – Sabino Arana Fundazioa, Bilbao, 2014.

Goigana, I. (2017): "Bonbardaketak Lekeition". Bonbardaketak Euskadin (1936-1937) Otxandio, Markina, Legutio, Eibar, Bilbao, Durango, Lekeitio, Gernika, Zalla...Gernikako Bakearen Museoa (argitaratze prozesuan).

Gorriti, I. (2015): "Baltasar Delgado, el miliciano de la Orquesta Nervión", Deia egunkaria, 2018-11-8. <http://m.deia.com/2015/11/08/sociedad/historias-de-los-vascos/el-miliciano-de-la-orquesta-nervion>

Iparragirre, G. (2008): "Euzkadiko Urrea, Ondarroatik Baionara" in *Ondarroa 2008*, Ondarroako Udala, 152-158.

Irazabal Agirre, J. (2001): *1937 martxoak 31. Durango. 1937ko martxoaren 31n Durangoren aurka egindako aire-bonbardaketari buruzko azterlana*. Gerediaga Elkarte, Durango.

Irazabal, Agirre, J. (2007): *Gerra Zibila Durangaldean (1936-1937)*. Gerediaga Elkarte, Durango.

Irazabal, Agirre, J. (2012): *Gerra Zibila Durangaldean (1936-1937)*. Gerediaga Elkarte, Durango.

Juaristi, P. (2011): *Markinako Frontea. Markinako eta Xemeingo Egoera Politikoa eta Soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean*. UPV/EHuren Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Juaristi, P. (2014a): *Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko Frontean*. UPV/EHU, Bilbo.

Juaristi, P. (2014b): "Gipuzkoako Frontearen Iparraldea. 1936ko irailaren 21etik urriaren 10era bitartean" in P. Juaristi; J. Chueca; F. Etxebarria; A. Esteban y I. Goigana, *Goazen Gudari Danok Askatasun-Bidean. Zirardamendi-Aiastia (San Migel) – Elgoibar, 1936*. Elgoibarko Udala – Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2014.

Juaristi, P. (2017): "1937ko apirilak 26: Munitibarrren eta Bizkaiko Ekialdeko herrien aurkako erasoak", *Kondaira* 17. zenbakia, UEU, 2017, 1-31.

Legarra Belastegui, M. (2008): *De la calle Pi y Margall al Tercio de San Miguel (Recuerdos de un requeté)*. Actas argitaletxea, Madril.

Mendizabal, J. M., Lasa, J. L. eta Agirre, F. (2006): *Gudaris y rehenes de Franco (1936-1943)*. Alberdania, Irun.

Ocamica, F. : Mis vivencias durante la guerra civil. Onaindia, D. (1937): "La Guerra Civil Española en Markina" txostena, 20. kaxa, argitaratu gabea. Alberto Onaindiaren Artxiboa, Derio.

Onaindia, A. (1980): *Hombre de Paz en la Guerra. Obras completas de Alberto de Onaindia*. La Gran Enciclopedia Vasca. Kardaberaz Bazkuna.

OHZ eta Lan Taldeko kideak (2007): "Encarcelamiento de requetés tras el alzamiento del 18 de julio de 1936". *Ondarroa 2006*. Ondarroako Udala, 142-151 orrialdeak.

Talon, V. (1988): *Memoria de la Guerra de Euzkadi de 1936*. Plaza & Janes, Bartzelona.

Untzeta, F. (1937): *La Sanidad Militar en Euzkadi*. Talleres Gráficos de Euzkadi.

Urgoitia, J. A. (Datarik gabe): "Decisiones tomadas por el Coronel Solchaga tras la conquista de San Sebastian". Urgoitia, J. A. (Zuzendaria): *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. Lehen parte. La Pérdida de Guipúzcoa*. II. Tomoa, Sendoa, Oiartzun.

Vargas Alonso, F. M. (2001): "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936 - 1937)". *Vasconia*, 31. zenbakia, 275-304.

Vargas Alonso, F. M. (data gabe - IV): "Los batallones vascos y la primera fase de la ofensiva del General Mola sobre Bizcaya (31 de marzo - 19 de abril de 1936)" en Urgoitia, J. A. (Zuzendaria): *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. Segunda Parte. La Ofensiva del General Mola Sobre Bizcaya*. IV. Tomoa, Sendoa, Oiartzun.

Vargas Alonso, F. M. (data gabe - II): "La formación de los batallones y la guerra en Vizcaya" en Urgoitia, J. A. (Zuzendaria): *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. Primera Parte. La pérdida de Guipuzcoa*. II. Tomoa, Sendoa, Oiartzun.

Vargas Alonso, F. M. (2007): "Voluntarios internacionales y asesores extranjeros en euzkadi" (1936-1937). *Historia Contemporánea*, 34. zenbakia, 323-359 orrialdeak.



Erabilitako web orriak

1. Ahotsak.com: <http://www.ahotsak.com/berriatua/hizlariak/miguel-elordi-egurrola/>
2. Auñamendi Eusko Entziklopedia: <http://www.euskomedia.org/auñamendi>
3. Diario Vasco: <http://www.diariovasco.com/v/20130202/costa-urola/fallece-ultimo-gudari-zarauztarra-20130202.html>
4. Deia egunkaria, 2018-11-8. <http://m.deia.com/2015/11/08/sociedad/historias-de-los-vascos/el-miliciano-de-la-orquesta-nervion>
5. Errepublikak Plaza: <https://errepublikaplaza.wordpress.com>
6. Euskonews & media: <http://www.euskonews.com/0290zkb/gaia29003es.html>
7. Eusko Jaurilaritza: Liburuklik: Euskal Liburuteגי Digitala, hemeroteca, prentsa historikoa: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/10408>
- Ondarroako Historia zaleak: <https://ondarroakohistoria.wordpress.com>
8. Eusko Jaurilaritza, Justizia eta Herri Administrazio Saila: http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contmh2/es/contenidos/informacion/listado_personas_desaparecidas/es_memoria/b_listado_personas_desaparecidas.html
9. Gara egunkaria: <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20090822/152986/eu/Luis-Sansinenea-Zuruppe-EAE-ANVko-gudari-handi-baten-100-urte>
10. Zarautz, 1936: <https://zarautz1936.wordpress.com/2014/09/19/loiola-62-gazte-zarauztarren-gerra-eskola/>

ZONA DE VIZCAYA

Schizzo N° 2

Svolgimento delle operazioni -


1^a fase (31 marzo - 31 maggio)



VILLASANA

SALINAS

ORDUN



Italiako artxibo militarretan aurkitutako plano eta irudiak